

NOAHREN BIDAIA

Bazen behin, Noah izeneko hartz polar bat. Antartikan bizi zen, bere amonarekin eta beste hartz polar batzuekin. Noah oso hartz polita eta alaia zen, eta beti zoriontsu zegoen. Ile zuri-zuria zeukan, eta gainerako hartzek Noahren ile ederra eta leuna izan nahi zuten. Gainera, oso intartsua eta garaia zen, eta bere amona oso zaharra zegoenez, Noahk beti arriskuetaatik babesten zuen, eta horregatik, oso pertsona hona zen. Denek estimazio handian zuten Noah. Hartz txiki honek bizitza ezinhobea zeukan, inongo arazorik gabe.

Egun eguzkitsu hartan, beti bezala, Noah bere lagunekin jolasten zegoen, eta oso ongi pasa zuen, baina etxera bueltatzeko ordua zen, beraz, bere lagunak agurtu zituen eta etxera itzuli zen. Bat-batean, zalantza bat sortu zitzaion buruan. Bere bizitzan zerbait falta zitzaioela somatu zuen, eta horrek Noah kezkatu zuen, bere bizitza ezinhobea zela pentsatzen baizuen. Hortaz, amonari galdetzera joan zen.

- Amonatxo maitea, zuk niri zerbait falta zidala uste duzu?–galdetu zion.
- Noah, zuk badakizu zure bizitza ezinhobea dela–erantzun zion amonak.

Horrek asko pentsarazi zion Noahri, eta asko pentsatu ondoren, zerbaitetaz konturatu zen. Gurasorik ez zituela! Nola ez zen aurretik konturatu gure Noah? Hartz txikia oso-oso triste jarri zen, eta amonari esan zion.

- Amonatxo maitea, egia al da gurasoak ez ditudala?–galdetu zuen negar zotinka.
- Begira, nire Noah maitea, oso historio luzea da– esan zion amonak argazki batzuk ateraz– zure gurasoak bi hartz eder gazteak ziren, eta oso bikote erromantikoa eta polita osatzen zuten–amonari begiak malkoz bete ziren.
- Eta zer gertatu zen?–Noahri jakingura sortu zitzaion.
- Ondoren, zure ama zutaz haurdun geratu zen– jarraitu zuen amonak– Zure gurasoak poz-pezik zeuden. Zu jaio zinen egunean janari bila joan ziren beste hartz batekin, baina bakarrik beste hartza itzuli zen, eta zure gurasoak esploratzaile batzuk esperimentuak egiteko eraman zituztela kontatu zigun eta asko maite zaituztela eta inoiz ez zaituztela ahaztuko esateko eskatu zidan. Egun horretatik aurrera, ez dut gehiago jakin haiei buruz. Horregatik, zutaz arduratzea erabaki nuen.
- Eta horrek esan nahi du ez ditudala inoiz ezagutuko? Ez! Hori ez da bidezkoa! Ez da bidezkoa gainerako hartzek gurasoak izatea eta nik ez! Nire gurasoen bila joango naiz!–ohiukatu zuen sutan zegoela.
- Baina Noah, nahiz eta gurasoak ez izan, badakizu nirekin ondo zaudela, ezta?
- Nire gurasoak ezagutu nahi ditut, eta beste guztiak bezala izan. Erabakita dago! Biharamunean haiek ezagutzeko bidaia hasiko dut– eta hori esanda, bere motxila prestatzen hasi zen. Motxilan, bere gurasoen argazki batzuk sartu zituen, janaria...

Hurrengo egunean, gure hartz txikitxoak, bidaia hasi aurretik bere amona agutu zuen.

- Agur amonatxo maitea, ziur nago bueltatzen garenean zoriontsu biziko garela denok batera. nik asko maite zaitudala eta inoiz ez zaitudala ahaztuko jakin ezazu–esan zuen bere amona besarkatuz.
- Noah, badakizu oso zaharra naizela, eta zu bueltatzen zarenean ez naizela egongo, sentitzen dut.

— Amona nik asko maite zaitut, eta inoiz ez zaitut ahaztuko— esan zuen Noahk bere amona besarkatuz. Eta etxetik irten zen, bere gurasoen bila, bere bizitzako abentura berri bat hasiz.

Hainbat orduz kostalderantz ibili eta ibili zen, Anartartika hotzean zehar, baino bat-batean, gehiago ezin zuela konturatu zen, eta bere amonataz gogoratu zen. Zola ote zegoen Noahrik gabe? Noah momentu batean etxera bueltatzean pentsatu zuen, baina gero bere amets handienaz gogoratu zen: bere gurasoak ezagutzea. Orduan, kostaldera ibiltzen jarraitu zuen. Ordu batzuk pasa eta gero, kezkatzen hasi zen, ez zuelako kostaldea aurkitzen. Horregatik, galdu egin zela konturatu egin zen. Beldurrez eta hotzez dardarka zegoen, eta horregatik, lurtean etzan zen, eta lo hartu zuen.

Esnatu zenean, ez zuen sinesten gertatzen ari zena! Kaiola batean sartuta zegoen, New Yorkera zihoan itsasontzi baten barruan! Noah larritu egin zen, ez zekielako zer gertatzen ari zen. Baina hobeto pentsatuz, gertaera honek, agian bere gurasoak aurkitzera lagunduko ziola konturatu zen. Beraz, berriz bere kaiola txikian lo geratu zen.

Bat-batean, soinu ozen batzuk hartz txikia esnatu zuten. Zer gertatzen ote zen? Gainera, gizon arrotz batzuk etorri ziren, eta gure Noah, kaiolarekin batera itsasontzitik atera zuten. Kanpoaldea ikusgarria zen! Antartikarekin ez zuen inongo antzarik. Dena txuria, hoztuta eta izotzez osatuta izan beharrean, dena eraikin erraldoiez, kaletaz, kotxez eta jendez beteta zegoen. Noah aho zabalik geratu zen. New Yorkeko hirian zegoen! Gizon horiek, Noah kaiorekin batera sartuta, taxi batean sartu zuten. Hartz polar honek hiri honetako leku guztiak ikusi zituen. Central park parke mirengarritik Empire Estateko eraikin ikaragarria.

Ondoren, taxia “Central Park Zoo” jartzen zuen leku ezjakin batean gelditu egin zen. Geroago, taxia gidatzen zuen gizonak Noah taxitik atera zuen, eta Zoo horretan sartu zen. Han, mota guztietako animaliak zeuden, eta gure hartz txikiak ez zituen ezagutzen. Hortaz, harridura gelditu zen. Noah eramaten zuen gizona, ibiltzen ari zela, leku batean gelditu egin zen. Hor, Noah bezalako hartz polar ugari zeuden. Noah zerbaitetaz konturatu zen. Han, belarrean etzanda zeuden bi hartz horiek, zerbaitetaz gogorarazi zioten. Noahk motxilatik gurasoen argazkia atera zuen. Ezin zuen sinetsi gertatzen ari zena! Etzanda zeuden hartz horiek argazkian ateratzen ziren berdin-berdinak ziren! Baina nola zen hori posible? Gure hartz polarra pozez saltoka gurasoengana iritsi zen. Haiek, arraro begiratu zioten, ez zutelako ulertzen gertatzen ari zena.

— Kaixo ama, kaixo aita! —esan zuen.

— Nola? Baina nor zara zu? — galdetu zuen amak.

— Benetan ez zara nitaz gogoratzen? Ni neu naiz, Noah zuen seme maitea.

— Zu zara gure Noah? Nola da posible? Benetan?

— Bai! Ni neu! — eta pozaren eraginez, negarrez hasi zen, eta gurasoak besarkatzen hasi zen.

Hurrengo egunak oso zoriontsu pasa ziren Noahrentzat, baina arazo txiki bat zegoen. Zoo hartan, animaliak dibertsorako, besterik ez ziren erabiltzen. Soilik erabiltzen zituzten jendeak ongi pasatzeko. Baina, animaliak benetan gustura al zeuden? Bada ez, baina hori ez zitzaion inori axola, Noahri izan ezik. Noah bakarrik gustura zegoen gurasoekin batera zegoelako, eta konturatu zen horrek ezin zuela horrela jarraitu. Gure hartzaren egunak gero eta aspergariagoak ziren.

Egun batean ezusteko bat gertatu zen. Egun hartan zoologikoaren langile bat erretzen ari zela, bukatzerakoan zigarroa itzaltzeaz ahaztu zen, sute bat sortuz. Horregatik, sute-alarma piztu zen eta,

ondorioz, animalien kaiola guztiak ireki egin ziren. Noah eta bere familako beste bi kideek zoo madarikatu horretatik irtetzeko aprobeixatu zuten. Zoo horretatik atera zirenean, polizia haiek harrapatzen saiatu ziren, baina hartz polarrek oso azkar egiten zuten korrika, poliziek ez zuten lortu. Geroago, taberna bateko telebista batean Antartikako glaziarrek klima aldaketaren ondorioz desagertzen ari zirela ikusi zuten. Noah eta bere familia ezin izango zuten etxera bueltatu!

Hartz polarren familia honek kale ilun batean lo egin zuten, ez zekielako zer egin bizirautko. Biharamunean, hartzek porturantz joan ziren. Han, Alaskarantz zihoan itsasontzi batera igo ziren, inor konturatu gabe. Egun batzuk geroago, Alaskara ailegatu ziren. Han, haien ohiko klimara bueltatu ziren, beste hartz batzuk ezagutuz, bizitza berri bat osatuz.

Azkenean, oso pozik bizi izan ziren betirako.